

...eta!
Kittoa!

2016-XI-4

991 zkia.

Agurraren aurrean

EUKi
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**



AUTO ASEGURUA
MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA, KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAITZA**

+ osasun gida

Dentistak

**arat**
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

 Clinicas dentales UniverSal

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS: 53/13

**bista eder**
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

**EIBAR** ♦ HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

**IRAZABAL**
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**hertz-klinika**
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



**abontza**
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Maialen Belaustegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– S.O.S. Pentsioak mehatxupean –

Argi gorri guztiak pizten ari dira. Alde batetik hor ditugu Alderdi Popularreko gobernuaren mehatxuak pentsioetarako dirua agortzeaz dagoela esanez eta bestetik, EAJ, PP eta PSEren ukazioa gutxienezko pentsio duinak hemen bermatuak izan daitezten.

Onartezina da herritarren %25a izutzea eta mehatxatzea, zeintzuk eta urteetan lan egin ondoren, hilabete bukaerara heltzeko hainbeste zailtasun bizi behar izaten duten pentsiodun asko eta asko.

Ez dugu inondik ere onartuko. Jakin, badakigu pentsioen etorkizuna, erabaki politikoen menpe dagoela. Ordezkaririk ez dagoen **exijitzen** diegu, hilabete bukaerara duintasunez iristeko behar adinako pentsioa jaso dezagun eta ahaztu ditzaten, Estatu-ko Gobernu ezberdinek egin dituzten bezela, mozketen bideak.

Gaur Euskal Herrian 670.000 pentsiodun inguru gara, eta gehienek 1.080€ baino gutxiagoko pentsioa dute. Horrek esan nahi du pobrezia mugara azpitik daudela eta horrekin **bukatu egin behar da**. Gogoratu behar dugu halaber, milaka pertsona daudela, bereziki emakumeak, inolako pentsiorik kobratzen ez dutenak bizitza osoan kotizatu ezindako lanetan aritu direlako.

Eskubide Sozialen aldeko Euskal Herriko Plataformek, duela hilabete bat, Eusko Legebiltzarrean, 71.724 sinadura aurkeztu genituen, bi aldarrikapen nagusi eskatuz: pentsiodun orok 1.080€ kobratu ezean, osagarria jaso dezan, gutxienezko horretara

iritxi aldera. Horrekin batera, Babes eta Seguritate Sozial Sistema Propioa sortzea.

Gaur, inoiz ez bezela, berresten ditugu bi aldarrikapen horiek eta Legebiltzar berriari exijitzen diogu gauza ditzala. Ez dugu onartuko politikoez soldata ederrak kobratzen dituzten bitartean eta Lehendakariak bizitza osorako pentsioa ziurtaturik daukanean, pentsiodun askok hilaren amaierara ezin iritsi egotea edo neguan begailurik gabe bizi behar izatea edo eta azken legegaldian egin zuten bezela, beharrezkoak dituzten sendagaiak, doainik ez ematea.

Madridik datozkigun mehatxuak direla, Eusko Legebiltzarretik zein Gobernutik jasotzen ditugun mespretxuak direla, ez dugu etsiko eta egoera hau salatzen jarraituko dugula jakin bezate.

Pentsiodunok gizarte honen %25 inguru gara eta zahartzarora duintasunez bizitzeko eskubide osoa dugu.

Gure aldarrikapenak eta Gasteizen aurkeztutako 71.724 sinadura kontutan hartzea eta erantzun egokia izan ditzaten exijitzen dugu.

Gure azkeneko urteak duintasunez bizi nahi ditugu. Horregatik eskandalagarritzat jotzen dugu hainbat politikori bost axola zaiela milaka pentsiodunen egoera eta bitartean dirudunei, gutxienezko inpostuak eskatzen ikustea.

Eskubide Sozialen Aldeko Euskal Herriko Pentsiodunen Plataformak

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAZTAN EGIN.- Musu eman, laztandu. “Laztan egin etsanetik, zoratuta dabil”.

LAZTAN EMON.- Musu eman, laztandu. “Laztan emon eta brau! konorta etorri jakon”.

astean esanak

“Kirol ekitaldi handiak gai dira euren kabuz mantentzeko; ez dute laguntza publikorik behar. Kirol taldeak gainerako enpresak bezala tratatu beharko lirateke. San Mames eta Anoetaren kasuak ez dira berdinak. Aurrenekoak jabego pribatua du eta klubak hartu beharko luke bere gain obren kostua, beste edozein fabrikak bere instalazioak berritu eta handitzean egin ohi duen bezala. Anoetaren jabea, ordea, Donostiako Udala da; botere publikoari dagokio ikertzea espazioa eraldatzea behar ote den, komunitateak erabili beharko lukeela kontuan izanik betiere”

(MAITE FUENTES, EHU-KO IRAKASLEA)

“Bigarren burmuin bat dugu hestean, gainekoarekin hartu-emanen dena. Hestean sare neurologiko garrantzitsua dugu. Gorputzetik kendu eta ontzi batean emanda ere, funtzionatzen segituko du hesteak. Liluratzen gaitu jakiteak serotoninaren %5 baizik ez dugula burmuinean, eta ia beste guztia hestean. Neuro-igorgailu horretaz osatuak dira depresioaren aurkako erremedioak. Nerbioak ez doaz goitik behera bakarrik; badira behetik gora doazenak ere. Nerbio bagoa dugu ezagunena, orain dela 30 urte moztzen zutena ultzera sendatzeko. Ondoren urdailak %50 azido gutxiago jariatzen zenez, sendatzen zen eria”

(PIERRE POITRAS, SENDAGILEA)

“Emakumezkoetan infartoak larriagoak dira, beranduegi diagnostikatzen direlako batez ere. Infarto bat izan ondoren, beste bat izateko posibilitatea handia da, %25ekoa gutxienez. Behin infartoak izanda, jarraitu beharreko tratamendua ere lehenago bazterten dute emakumeek orokorrean. 60-65 urtetik aurrera, lau infartutik bat da gizonezkoena eta hiru emakumezkoena. Sendagileok ere kasu gehiago egin izan diogu orain arte min torazikoarekin zetorkigun gizonezkoari emakumezkoari baino. Bularreko eta besoko minetatik haratago, badaude beste sintoma batzuk ere: andra batek esaten badizu tristura duela urdailean, kontuz ibili!”

(LUIS ANGEL SAMANIEGO, SENDAGILEA)



IÑAKI UGARTEBURU

Kirolaren VI. Euskal kongresua

Azaroaren 17 eta 18an, Hernanin eta Donostian kirol munduko hainbat eragile elkartuko gara kirolaren inguruan jardutera, VI. Kongresu honetan "Kirolaren zehar-balioa" izango dugu aztergai.

Duela gutxi idazten nuen, harrizten ninduela Donostia 2016ko kultur hiri-burutzaren programan inongo kirol ekitaldi, hitzaldi, topaketa... ez izatea programatua, (barkaezina, nire ustetan). Ez dugu behar bezala baloratzen.

Oraingoan VI. Biltzar berri honekin, besteak beste kirolaren garrantzia goraiatu nahi dugu. Kirola, jarduera fisikoaren famili kidea, bizitzaren arlo askotako partaidea da; hezkuntza prozesuan garrantzitsua, eragile ekonomiko uka ezina, gizakiaren osasun fisiko eta mentalean faktore erabakigarria, emozio eta sentsazio emaile, giza taldeen identifikaziorako faktorea, etab.

Guzti hau izanda, oraindik ere ez dut uste behar duen neurrian baloratua dagoenik eta behar beharrezkoa ikusten dugu kirolaren inguruan hausnartzea, gizartean duen garrantziaz jabetzeko.

Hilabete honetan aukera izango dugu ekarpen txikitxo bat egiteko (<http://www.kaitkirola.org/vi-congreso-del-deporte-en-euskadi-euskadiko-kirolaren-vi-biltzarra/>), gonbidatuak zaudete!

Lokala zabaldu dau Minbiziaren Kontrako alkartiak

Debabarreneko Minbiziaren Aurkako Alkartiak lokala inauguratu eban aurreko astian Eibarren, Ardantza kaleko 11. zenbakixan, alkarte horretako zein udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari ugariaren parte-hartzia euki eban ekitaldixan. Egoitza barrixa zabaldua Eibar eta inguruko herrixetako gaixueri eta fameli-xeri zerbitzu eta arreta hobiak eskindu nahi detsez eta, horretarako, astelehenetik barixakura egongo da zabalik, 09:30xetatik 13:30xetara, eta telefono zenbakixa 943202494 da.



Lokala Ardantza kaleko 11. zenbakixan dago.



269 LED argi barri ipintzeko biharrin hasi dira aste honetan. 11 kaletan jarriko ditue argi bariak: T. Anitua (78), Otaola (42), Bidebarrieta (38), Barrena (35), R. Galdos (22), Santaiñes (12), Karmen (11), Barakaldo (11), Barrenengua (9), Calbeton (7) eta Plaza Barria (4). Inbersiñua 82.951 eurokua (BEZ barik) izango da.



Pagatxakuak Bizkaia aldi

Oin dala egun batzuk exkursiñua egin dabe Pagatxa emakumien al-kartekuak eta, bestiak beste, 1892xan eraikittako Bilboko udaletxia eta Juan Maria Aburto alkatia ezagutu zittuen. Horrez gain Foru Jauregi-xan egon ziran bisitan eta handik Durangora juan ziran, Santa Maria basilika, udaletxia eta intereseko beste toki batzuk ikusteko.





Enpanada eta Magosto jaixa Urkizun

Asteburuan ospatuko dabe Galiziako Etxe-kuak VII. Enpanada eta Magosto Jaixa Urkizun. Bixar goizetik hasiko dira ekitaldixak, 11:00etan Ribeiro ardua eta enpanada zati-xak saltzeko txosnia zabaldua (egun osuan egongo da zabalik). 13:00ian gonbidatuerei harria egin eta jarraixan hasiko da VII. Enpanada Lehiaketia. Eta arratsaldian, 18:00etatik

aurrera segiduko dabe jaixarekin, afaltzeko or-dura arte. Domekan bakarrik goizetik ospatu-ko dabe jaixa: txosna 11:30xetan zabalduko dabe eta, ordu horretan hasi eta 12:30xak arte umieri gaztaiñak duan emongo detsez. Egun bixetan As Burgas Galiziako Etxeko Os Galaicos gaita taldiak jaixa girotzen jardungo dau bere musikia eta dantzak eskinduta.

autuan

Akademien Azoka

Gaur amaittuko da Eibarko II. Akademien Azokan parte hartzeko eskaeriak jasotzeko epia eta interesa dakanak Pegorara jo biharko dau izena emoteko. Azokia, barriz, hurrengo asteburuan, azaruaren 12xan eta 13an zabalduko dabe Untzagan, horretarako preparako daben karpán.

Gaztaiñerre

Ohitturiari jarraituta, Anima eguna pasau eta hurrengo bigarren astelehenian (azaruak 14an) ospatuko dogu Gaztaiñerre gure herrixan. Hori dala eta, AEK euskaltegixak atzera be "Ondra janak tabernaz taberna" antolatu dau, nahi daben guztiendako. Hitzordua 19:00etan ipiñi dabe, Paloma tabernan. Handik abiatuta kalejira eta afari merienda egingo dabe, trikiltarixekin.

Aurreko astian, zapatuan alkartu ziran erretratuan ikusten ditzuzue-nak, aurtén 72 urte betetzen ditzue-nak, alkarrekin bazkaldu eta eguna jai giruan emoteko.



1944. urtian jaixotakuen jaixa



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra ☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Bada beste modu bat
MERKEAGOA



autoeskola



A, B, C, E, CAP, ADR

GIDARI ESKOLA BERRIA

2 KOBRANTZA BAKARRIK

1) – Izen-ematea: 100 € + BEZ
Teoria ikastaroa, e. learning materiala eta eskukoak, azterketarako tramitazioa, kudeaketa eta aurkezpena (ez dugu matrikulazioa kobratzen)

2) – Praktiak: 25 € + BEZ
ZER GEHIAGO ORDAINTZEN DA?
Trafikoak 90,30 € kobratzen du bi deialdietarako azterketa-tasengatik

Non dago abantaila?

Pack osoa:
izen-ematea + e. learning ikastaroa + 5 praktika + BEZ = 216 €

Zer gehiago aurreztu dezakezu?

Bitan baino gehiagotan huts eginez gero, **tramitazioa 30 € izango da bakarrik**

Zaborren tasa %5'8 igoko dabe

Zaborren bilketia zein birziklatze sistemak hobetzeko aitzakixarekin, zaborren tasa %5'8 igotzia erabagi eben Mankomunidadearen batzar nagusixak urriaren 19xan egindako ezohiko bilkuran. Aditzera emon dabenez, 2017xan txipdun edukiontzi grisa ezarriko dabe birziklatu ezin leikiazan hondakina batzeko eta, horrekin batera, papel/ kartoiaren eta ontzixen bilketen maiztasuna %40 handituko dabe: "Gaiakako bilketia hobetzeko eta birziklatze-tasak haunditzeko inbersiño eta zerbitzuak area-



Mankomunidadeko bihargiñak lanian.

gotziak eragin dau tasak igotzeko premiña izatia. Azken batian 2020rako Europar Batasunak alor horretarako ezarritako helburuak gainditzia da asmua".

Deban eta Mutrikun aurtan hasittakuaren bidetik, datorren urtian Debabarreneko gaiñontzeko herrixetan be kontenedore grisak ipintzen juatia aurreikusit dabe eta, zerbitzu horretarako kontenedoriak erostiak bakarrik 700.000 eurotik gorako inbersiña eskatuko dau. Hortik aparte beste 145.000 eurotik gora biharko dittue prestakuntzako, sensibilizaziñorako eta erabiltzaillieri arreta eskindu ahal izateko.




Begoña Pecharroman antropologua.

Bardintasunaren inguruko taillarra

Emakundek "Bardintasunerako Gunea" izeneko topaketia antolatzten dau urtero eta aurtan, "XIII. Bardintasunaren Gunea 2016" dalaquaren harira, bixar Euskadiko Guztion Onerako Ekonomiaren Elkartek (GOE-EBC) hausnarketarako gune bat sortu nahi dau gurian, "parte hartzera animatzen diranak gure inguru sozio-ekonomikuan gizonak eta andrak daken rolari buruz eta hori aldatzeko aukeren gaiñan berba egitteko aukeria izan deixen".

Horretarako ordu eta erdi inguruko taillarra egingo da, talde txikixan hainbat kontzeptu lantzeko eta, ho-

rrekin batera, galdera honendako erantzuna billatzen ahalegintzeko: "Kapitalismua andra eta gizonen arteko desberdintasuna iraunarazten daben eredu ekonomikua da?". Taillarra Begoña Pecharroman antropologo eta Euskadiko GOE-EBC alkar-teko kidiak emongo dau, 11:00etatik 13:00etara Txaltxa Zelaixan egongo dan autobus ibiltarixan. Bestalde, nahiz eta taillarrian parte ez hartu, autobus horretan guztion onerako ekonomixari eta eredu ekofeministari buruzko informaziñuarekin panelak eta bideo batzuk ipiñiko dittue, nahi dabenak ikusteko.



Zientzia eta Teknologixia museuan

Bigarrenez antolatu dabe jardunaldi teknologikua Armagintzaren Museuan, Zientzia eta Teknoloxiaren Astearen harira. Bixarko saiuk pare bat orduko iraupe-na izango dau, 11:00etan hasi eta 13:00etara arte eta, parte hartzera animatzen diranak robotikan lehen pausuak emoteko aukeria eukiko dabe, horretarako Arduino plataformia erabillitta. Antolatzaiillak diñuenez, "Makeblock izenekua belaunaldi barriko eraikuntza-kit bat da, Arduino erabiltzen ikasteko oso aproposa eta bixarko saiuan hori ezagutu eta probatzeko aukeria eukiko dau jendiak. Horrekin batera, Mbot-a eraiki eta programatzeko tartia be egongo da". Jardueran parte hartzeko ez da gaixaren inguruan ezer jakin bihar, edozeiñek egitteko modukua izango da eta. Gehixen jota 20 lagun onartuko dittue eta parte-hartzia duan izango da. Izena emoteko, museoa@ei-bar.eus helbidera idatzi.



Isasiko espaloia konpontzen

Isasi kaletik behera, Untzagaraiño eskumatik batzetzeko espaloia konpontzeko biharrek hasi dittue aste honetan. Espaloiari zabalera haundixagua emoteko lanak 3. eta 39. zenbakixen bittartian egingo dira eta, oiñezkuak kalia ibiltzeko toki gehixago izatiaz gain, 25 aparkaleku barri sortzeko asmua dake. Udalak Excavaciones y Transportes Orsa, S.L. enpresakueri emon detse obra hori egitteko arduria: zortzi asteko epian amaittu biharko dittue konponketak eta 152.778 euro erabilliko dira hórrek pagatzeko.

Hasi dira Ongietorri Berbetan-eko billerak

Udalaren eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik abiatu barri dan Ongietorri Berbetan egitasmuaren harira, aurreko astian aurkezpen-billeria egin zan Portalean eta, ha-



Egitasmuan parte hartzen dabenetako batzuk. **Silbia**

rrera eta alkarbizitzarako programia ezagutzera emoteko egin zan ekitaldixan, bestiak beste, hurrengo billeretarako fetxa batzuk lotu zittuela azaldu dabe arduradunak. Horrekin batera, programan parte hartzeko izena emon dabena ikasturte honetarako ekintzak antolatzeko biharrari ekin detse. Hiru talde sortzeko asmua dake Urki, Urkizu eta Amañan. Urkizuko taldiak aste honetan egin dau lehen billeria, eguaztenian eta hillaren 16xan bigarrena egittia aurrekusi dabe. Amañako taldiak, barriz, azaruaren 10ian egingo dau, 17:00etan Torrekuako parkian eta Urki-kuak azaruaren 28xan batzeko asmua dake. Egitasmuan parte hartzeko izena emon dabenen artian denetarik dago: batzuk mailla personalian parte hartzera animau dira, baiña badagoz alkarte diferentietatik (Al Toyor, Lacasiun, Egoaizia, Diapo Lete, Nepal, Proyde Proega, Al Karama...) etorrittako beste batzuk be. Programaren inguruko informaziño gehixago nahi dabena ...eta kitto! Euskara Elkartearen galdetu leike zuzenian edo, bestela, ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzi.

Banatu dabe Gure Balioak Saria

Aurreko eguenian jaso eban Nerea del Campo Agirre eibartarrak Gure Balioak Saria 2016, Sorraluzen, Debegesa Garapen Agentziak, Sorraluzeko Udalarekin batera eta DanobatGroup enpresaren laguntasunarekin antolatu eban ekitaldi hunkigarrian. Aurtengo sari-duna genero indarkerixaren biktima diran andreri laguntzeko "Mujeres al Cuadrado" alkartiaren fundatzaillia da eta, horrekin batera, andra etorkiñen ahalduntzia lortu nahi daben "Empalabramiento" egitasmuaren

sortzaillia eta arduraduna be bada. Sorraluzeko Herri Antzokixan egin zan ekitaldixan 100 lagun baiño gehixago alkartu ziran. Nerea del Campok, hunkituta, Iker Aldazabal Sorraluzeko alkatiaren eskutik jaso eban sarixa, Juan Luis Baroja Colleten eskulturia. Ekitaldixan Ander Bergara, Emakundeko teknika-ria eta Gizonduz ekimenaren koordinatzailliak hitzaldixa emon eban eta Sorraluzeko Musika Eskolako haurren abesbatzak, bestalde, saiua zabaldu eta agurtu eban.



Nerea del Campo sarixa jasotzen.



ENRIQUE HERNANDEZ ROMERO

"Sito"

2016-X-25ean hil zen

"Gurekin egon ez arren, ez duzu gure bihotzetik alde egingo"

ZURE FAMELIXA



Urriaren 18an aurkeztu zuten Euskararen Foroa, Portalean. Aurkezpenean Euskara batzordeburu eta batzordekideak, Euskara teknikaria, planaren dinamizatzailea eta herriko erakunde eta elkarte askotako ordezkariak batu ziren eta, besteak beste, Udaltzat aho batez berriki onartu duen "Eibarko Hiria. Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025" izenekoari buruzko azalpenak jaso zituzten eta, hau guztia koordinatzeko ardura duen Idoia Argoitia aurreratu digunez, Euskararen Foroaren bigarren bilera datorren astean izango da.

IDOIA ARGOITIA (EUSKARA PLANAREN KOORDINATZAILEA):

"Benetan euskalduntzeko denon konpromisoa eta ilusioa behar dira"

- Aurreko hilean aurkeztu zen Euskararen Foroa pixka bat aurretik onartutako Euskararen Plan Estrategikoari lotuta sortu da, ezta? Nolako plana da hori?

Udaltzat aho batez onartu zuen hori hamar urterako plana da eta, nolabait esateko, herritarrek eskatuta, herriaren eskaera horri erantzuteko sortu dela esan daiteke, nahiz eta berez abiapuntua EH Bilduk egindako mozioa izan. Euskalgintzarako baliabide gehiago erabiltzeko eskaera hor zegoen, baina baliabide horiek bitan bereiztu daitezke: batetik, zuzenean ekonomiari lotutakoak leudeke eta, arlo horretan, udal aurrekontuetan, euskarari eskainitako diru-kopurua igotzen joan da. Baina, hortik haratago, planak aurrera egin ahal izateko giza baliabideak ere behar zirela ikusten genuen eta, horregatik, nik hartu dut plana eta bere inguruak koordinatzeko eta dina-

mizatzekeo ardura hori nere gain. Egiten dena gainbegiratu, jendea bileretarako deitu... horrelako kontuak eta beste batzuk egiten ibiliko naiz.

- Hasieratik argi laga nahi izan duzue ez dela udalaren plana, herriarena baizik...

Hala da, udalak badauka bere ardura, baina asmoa herritarren partaidetza ahalik eta zabalena izatea litzateke, hori lortu nahi dugu. Planaren diseinua kanpoko enpresa bati, Emun-i, egiteko eskatu arren, kontuan izan behar dugu planaren oinarrian herritar askoren partaidetza dagoela; horretarako Markeskuan bilerak egin ziren eta, aurrera begira ere, herritarrek parte hartzea oso garrantzitsua izango da. Udaltzat plana aho batez onartu zuen, baina orain gure esku dago plan horretan jasota dagoena betetzea. Eta herritarren partaidetza hori sustatzeko asmoz eratu da foroa, besteak beste.



- Nola joan zen foroaren aurkezpenerako bilera?

Oso ondo. Aurretik partaidetza mahaian egon zirenei gonbidapena bidali zitzaion eta, batzuk etortzeko aukerarik ez izan arren, talde polita batu zen Portalean. Eibartik kanpora, beste hainbat tokitan gure foroaren parekoak lirakeenak nola eratu diren azaltzera etorri ziren eta, euren azalpenak entzuteaz gain, foroak izan beharko lukeen martxa, talde-dinamika eta beste hainbat kontu zehazteko lanean hasi ginen eta hurrengo bilera noiz egin ere lotu genuen: datorren astean, azaroaren 9an bilduko gara bigarrenez.

- Ume eta gazteei arreta berezia eskaini zaie. Zer dela eta?

Ume eta gazteak arnasmune izatea nahiko genuke, pentsatzen dugulako hor dagoela premiarik handiena. Besteak beste, D eredu gazteak guztiz euskalduntzeko nahikoa ez dela argi ikusi dugu. Hori baino gehiago beharko dugu benetan euskalduntzea nahi izanez gero eta, lan horretan, motibazioak zeresan handia dauka zalan-tza barik. Familiek eta, orohar, gizarteak denon konpromisoa eta ilusioa beharrezkoak direla argi izan behar dute.



Euskara Batzordea osatzen duten ordezkariak ardura bikoitza dutela azaldu zuten plana aurkezteko ekitaldian: batetik, ordezkari politiko izateagatik dagokiena eta, horrekin batera, beste edozein herritar modura ere kontu honetan zer esan eta egin badutelako.

KALEAN LO

egiten dutenei buruzko datuak bildu dituzte

Aurreko barixakuan aurkeztu zuten udaletxean etxerik gabe dauden herritarren inguruan berriki egin duten azterketa Idoya Sarasketa Gizartekintza zinegotziak, Jaione Azkue Gizartekintza teknikariak, Ione Morras Inmigrazio teknikariak eta azterketa egiten ibili diren boluntarioetako bik, Diakite Abdoulayek eta Dauoda Thiamek. Prentsaurrekoan azaldu zuten, "Eusko Jaurlaritzak, 2013. urteaz geroztik, gizarteak baztertuta lagatzeko arriskuan daudenen inguruko ikerketak egin ditu eta aurten, lehenengoz, Eibarrek ere hartu du parte. Izan ere, orain arte batez ere hiriburu eta hiri handienetako datuak jasotzen ibili dira, baina zenbat eta hiri gehiagok parte hartu orduan eta emaitza adierazgarriagoak lortuko dituztela eta, uztailean gonbidapena jaso genuenean parte hartzera animatu ginen". Eibarren bezala, 24 herritan ibili dira datuak batzen eta, horri esker, "azterketako emaitzek EAE-ko populazioaren %65 inguru ordezkatzuko dute".

Eusko Jaurlaritzak berak eta ikerlanaz arduratu den SIIS-ek emandako irizpideei jarraituta jardun dute udaleko ordezkariak zein boluntarioek: "Nepaldarren elkartetik, Senegaldarren elkartetik, Kale-*ratzeak Stop plataformatik, Ego-
aiziatik, ikasleak... 22 boluntario ibili dira azterketa egiten laguntzen eta benetan eskertu nahi diegu musutruk egin duten aha-
legina". Aurreko astean, eguaz-
tenetik eguenera bitarteko gauean herriko kaleetan ibili ziren boluntarioak, taldeka, kalean lo egiten jenderik zegoen ala ez begiratzen eta, norbait aurkituz gero, galdetegi bati erantzuteko eskatzen. Erantzundako galdetegi horietako datuek osatuko dute, hain zuzen ere, azken emaitza eta ondorioak laburbiltzen dituen azterlanaren oina-*

ria. Horretan jardun zutenek azaldutakoaren arabera, Eibarren lau lagun aurkitu zituzten kalean lotan, andrazko bat eta hiru gizonezko eta, euren gaitasuna jo zutenean boluntarioek arazorik ez zutelako izan eta galdetegi erantzuteko prest egon zirela adierazi dute.

Agerraldian parte hartu zuten boluntario biek, berriz, oso pozik zeudela azaldu zuten, "horrelako azterketa batean parte hartzeko aukera eman digutelako. Aurrerantzean ere boluntario modura jarduteko eta ahal dugun neurrian laguntzeko prest gaude". Euren moduko etorkinak kalean lo egitera derrigortuta ikus dezaketela pentsatzen dute, zuzenean horrelako egoerarik ez bizitzeko zortea izan arren: "Gure kulturaren oso barneratuta daukagu kalean gure herritarren bat



Aurreko astean eman zuten egindakoaren berri udaletxean egindako prentsaurrekoan.

aurkituz gero, nora joan ez badu gure etxeko ateak zabaltzea, inor kalean ez lagatzen ahalegintzen gara". Agurtu baino lehen Dauodak bereziki pozik dagoela azpimarratu nahi izan zuen, "nire taldeak ez zuelako inor aurkitu kalean lo egiten, horrek poztu nau gehien".

285 lagun kalean lotan

Urriaren 26tik 27rako gaueko 22:00etatik 02:00etara egin zen zerbaketa, era koordinatuan EAEko 24 udalerrietako kaleetan: Gasteiz, Donostia, Bilbo (hiriburu hauetan urte batzuk daromatate zerbaketa hauek egiten); Barakaldo, Getxo, Irun, Audio, Santurtzi, Sestao eta Portugalete (2014ko zerbaketan jada hartu zuten parte); eta Durango, Eibar, Erandio, Errenteria, Güeñes, Hernani, Iurreta, Legazpi, Leioa, Pasaia, Tolosa, Urduña, Zalla eta Zarautz. Zerbaketa honetan, orotara, 1.022 boluntario ibili dira lanean eta azterlanak gaueko zerbaketa ho-

rretako emaitzak baino ez ditu aipatzen. Horren arabera, Euskadin bizitegi bazterketa larriko egoera bizi duten 285 pertsonen kalean egiten dute lo.

Euskal erakundeek aurtengo udan sinatutako bizitegi-bazterketa larriaren fenomenoaren azterketan eta analisisan sakontzeko elkarlan-protokoloaren ondorioz, zerbaketa biztanleria osoaren % 65a barne hartzen duten EAEko 24 udalerritan egin da. Protokolo horretan finkatutakoaren arabera, aurten —eta bi urtetik behin aurrerantzean— zerbaketak egingo da, eta 2017an eta ondorengo urte bakoitietan emaitzen txosten bat osatuko da. Ondoren, txosten hori bizitegi-bazterketari buruzko jardunaldi monografikoen esparruan aurkeztuko da.

Diotenez, planeta osoan hazten ari den bizitegi-bazterketa edo homeless fenomenoak Euskadin ere gertatzen da. EAEko udalerritan nagusienetako hamarretan Eusko Jaurlaritzak 2014an sustatutako gaueko zerbaketaren arabera, 323 lagunek kalean eta 1.513 lagunek etxerik gabeko pertsonen eskainitako bizitegi-baliabide publikoren batean egiten zuten lo. Zerbaketaren pertsona guztien artean, 297 Araban aurkitu zituzten (%16,2), 904 Bizkaian (%49) eta 635 Gipuzkoan (%34,6).



Gure herrian lehen aldiz egin da horrelako zerbaketa eta, azterlana egiteko, boluntario talde anitza elkartzea lortu dute.

Ane Areitioaurtena eta Iker Salas (sukaldaritza ikasleak)

"Klasera pozik eta ikasteko gogoarekin etortzen gara"

Ane eibartarra da eta Mogel Isasin ikasi zuen. Iker arrasatearra da, baina 4 urte daramatza Eibarren bizitzen. 17 urteko bi gazteek sukaldaritza ikasten dihardute Azitainen dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan. Zentru honetan eskaintzen diren sukaldaritza eta arotzeria irakaskuntzak Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren barruan daude, eta arrazoari desberdinengatik eskola porrota izan duten 15-16 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago. Hemen ateratu daitezkeen tituloak gero erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko aukera ematen du.

- Sukaldaritzako lehenengo mailan 16 ikasle inguru zaudete eta ia beste horrenbeste bigarrenen. Zer ikasten duzue?

Sukaldean danetik apurtxo bat ikasten ari gara: gozogintzan era eskotako tarta eta gailetak, pizzak, tortillak, okela... Goizean 8etan hasten gara eta 14:30ean irtetzen gara. 12:00ak arte sukaldean egoten gara eta hurrengo bi orduetan klase normalak jasotzen ditugu: lengua, mate, gizarte, ingelesa... Sukaldean zerotik hasi gara, ezer jakin barik. Hasieran janaria ebakitzeko modu desberdinak erakutsi dizkigute (juliana, brunoise...) Sukaldeko makina eta tresna guztiak nola erabili behar diren ere erakusten digute. Astean bi egunetan barra zabaldu egiten dugu eta guk sukaldatutako janariak saltzen dizkiegu zentruko beste ikasleei. Sukaldaritzako bigarren ikasturtean janari landuagoak egiten ikasten da eta hemendik kanpo kateringak prestatu eta zerbitzatu egiten ditugu.

- DBHko 4. mailan zeundetela erabaki zenuten hona etortzea. Pozik zaudete aukeratutako bidearekin?

Hemen oso gustora gaude, esan daiteke gure lekua aurkitu dugula.

Lehen, gure ikastetxeetan ez geunden bat ere gustura, ez zitzaigun gustatzen egiten genuena, baina hau desbedina da, eta etxera oso pozik bueltatzen gara. Batez ere alde praktikoa gustatzen zaigu, sukaldean lapiko artean egotean oso ondo sentitzen gara. Hemendik irtetzean, dena gainditzen badugu eta tituloa lortzen badugu, kirol gradu bat egitea gustatuko litzaziguke, eta hori ezin bada sukaldearekin jarraituko genuke. Hemen ikasten duguna baliogarria izango zaigu ostalaritzan lan egiteko.

- Lagun berriak egin dituzue hemen? Nolako giroa daukazue?

(Iker): Nik ez nuen inor ezagutzen, orain dela gutxira arte Arrasaten ikasten jardun dudalako. Hona etortzea gomendatu zidaten. Hasieran lotsa ematen zidan, baina orain, jendea ezagutu dudanean, oso gustora nago.

(Ane): Nik batzuk lehendik ezagutzen nituen. Eibarren denok elkar ezagutzen dugu. Nire anaia ere hemen egon zen ikasten. Ondo pasatzen dugu eta ikasi egiten dugu... beraz primeran! Klasera pozik eta ilusioarekin etortzen naizen lehenengo aldia da.



Oraingoan Elciegon (Errioxan) Marques de Riscalen duen hotelean (Luxury Collection Hotel, 5 izar) gaua pasatzeko txartela (spa + vinoteca + gosaria barne)



eta **1€**

SALMENTA LEKUAK:
El Corte Ingles / Echetto prentsa
Arriola prentsa / Correos / Isasi
okindegia / Mujika harategia /
Maria Ospital / Otegui / Bolintxo

	Gabonetako OTARRA 2.000 €ko balioa duen Otarra	
Prezioa: 1€ Zikloa: 2016ko abuztuaren 15etik 2017ko otsailaren 14ra	Prezioa: 1€ Zikloa: 2016ko abuztuaren 15etik 2017ko otsailaren 14ra	Fuskara Fiskaltza Inbentarioa: 17/2016ko azaroaren 14ko erretzikatze-erabakia

**GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO AUKERA**

2.000 €ko GABONETAKO OTARRA

Martxan da **GAZTEA DANTZAN** lehiaketa

Azken bi urteetan Gazteak antolatu dituen ekimenen artean arrakastatsuenetakoa izan da Gaztea Dantzan lehiaketa eta, hori jakinda, aurten ere urteroko hitzordu erakargarriari eutsi diote antolatzaileek. Urriaren 10etik martxan da lehiaketaren hirugarren edizioa eta, parte hartu nahi izanez gero, azaroaren 10era arteko epea daukazue, koreografiak jasotzeko azken eguna hori izango da eta. Antolatzaileen berbetan, *"azpimarratzekoa da ez ditugula dantzari profesionalak bilatzen, gerria lotsarik gabe mugitzen duten eta ongi pasatzeko gogoia duten gazteak baizik"*. Lehiaketarako bideoak aipatutako egunera arte jasoko dituzte eta, behin denbora-tarte hori amaituta, bozketa-faseari ekingo diote. Epaimahai batek, jasotako lan guztien artean 20 bideo aukeratuko ditu eta, ondoren, aukeratutako bideo horien artean bozketa egingo da www.eitb.com/eu/gaztea atarian. Entzulearen Sariaren botoak web horren bitartez jasoko dituzte, azaroaren 16tik



22ra bitartean. Beraz, sei egunez koreografia gustokoenen aldeko botoak emateko aukera izango da. Irabazlea, berriz, azaroaren 23an jakinaraziko dute, Gaztea irratiko "Dida" saioan.

Taldeka zein bakarka

Edozein bakarlarik, taldek edo koadrilak hartu ahal izango du parte lehiaketan: ikasle taldeek, kirol taldeek, koadrilek, kultur taldeek... Bakarkako lanak ere onartuko dira. Parte hartzeko talde edo bakarlarik bakoitzak nahi adina bideo lan aurkeztu ahal izango ditu, baina bakoitzak gutxienez 30 segunduko dantza koreografia bat izan behar du. Hortik aurrera nahi adina luzatzeko aukera dago. Eta, horretarako, edozein abesti erabili ahal izango da. Antolatzaileek diotenez, *"bideo lana bera baino*

gehiago dantzaren zailtasuna, originaltasuna, ikusgarritasuna... izango dira kontuan". Lanak bidaltzeko, bestalde, bideoa internet bidez igo behar du eta Gaztearen webgunean sartuta. Dena dela, Gaztea Dantzan lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintzak eta bestelako guztiak interneten, aipatutako atarian kontsultatu daitezke.

4.000 euro saritan

Guztira, 4.000 euro inguru banatuko dituzte saritan: alde batetik, Entzulearen Sari eskuratzen duenak 1.000 euro jasoko ditu; bigarren sailkatuak, 500 euro; eta hirugarrenak, 300 euro. Bestetik, Epaimahaiaren Sariak 1.000 euro emango dizkio taldean egindako dantzaldi onenari; 500 euro bikote edo bakarlarik hoberenari, eta beste 500 euro bideo onenari.

GABA BELTZA gaztelekuan prestatzen

Aste honetan izan diren Domu Santu eguna eta Gaba Beltza ospatzeko aitzakiarekin, aurreko asteburuan maskara beldurgarriak egiten ibili ziren Indianokua gaztelekuan, barixakuan hasi eta domekara arte. Gazteetako batzuk beraien aurpegira egokitutako maskara egin zuten, horretarako igeltsu-bendak erabilita eta, behin maskara gogortuta, bakoitzak bere gustora margotu zuen. Eta, horrez gain, domekan susto eta susto artean beldurrezko filma ikusi zuten.



PELLO ZABALA BERASTEGUI

5. urteurrena: 2011-XI-8



*Peito
Beti gure bihotzean*

ZURE FAMILIA



Aste honetan, eguaztenean hasi zen XXIV. Musikaldia - 48. Tolosako Abesbatza Lehiaketa gurean. Egitarauko lehen bi emanaldiak aurten Tolosan lehiatuko diren bi abesbatzek eskaini zituzten: Taipei Youth Choir, Taiwanetik etorritako ganbera abesbatzak eskaini zuen lehen kontzertua, Coliseo antzokian eta bigarrena, berriz, atzo eman zuen Discantus Vocal Ensemble (Budapest, Hungaria) taldeak. Hala ere, datozen egunetan ere izango dugu musikarekin gozatzeko aukerarik, egitarauan beste hiru ikuskizun jasota daude eta.



Goian, Discantus.
Behean, Taipei Youth Choir.



Azaroa inoiz baino **musikalagoa** dator

Ganbera-kontzertua hartuko du Coliseoak azaroaren 13an. "Harituz" hari-laukoteak, Isabel Laspiur piano-jotzaileak, Marisol Arrillaga soinu-joleak eta Pablo Zubiaurre perkusionistak, Eibarko Usartza Txistulari Bandarekin batera jardungo dute, Elena Perezek zuzenduko duen emanaldian. Hamar piezak osatutako egitaraua eskainiko dute: "Agurrak jolasean" (Txistu eta Piano), "Atta eta ama" (Txistu eta Piano), "Atabalariak" (Txistu taldea), "Ansola anaiak" (Txistu taldea), "Badinerie" (Txistu eta Piano), "Txorinoa

nora hoa" (Txistu eta Piano), "Hala ere" (Txistu, Silbote eta Soinua), "Ume eder bat" (Txistu eta Piano), "Impromptu y capricho" (Txistu eta Hari laukotea) eta "Mongono (Izotza)" (Txistu eta Hari laukotea).

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren emanaldia, berriz, azaroaren 18an izango da. Jose Miguel Laskurain orkestraren sortzaile eta zuzendariaren berbetan, "Santa Zezilia, musikariaren zaindariaren omenekoa kontzertua izango da.

Baina, berezitasun hori izateaz gain, beste berritasun batzuek ere izango dira". Hasteko, emanaldia Debabarreneko Abesbatzaren aurkezpena egiteko aprobetxatuko dutela aurreratu dute. Beraz, gure eskualdeko musikariek osatutako talde biak, abesbatza eta orkestra batera ikusteko aukera izango da lehenengoz. Aurreratu digutenez, "egitarau aproposa prestatzen dihardugu, ilusio handiz".

Kontzertuko beste atal batean haurrak izango dira protagonistak: "Oporren aurretik Eibarko Musika Eskolarekin hurremanetan ipini ginen, eskolako ikasleak orkestrarekin batera jotzeko gonbidapena egiteko eta erantzuna paregabea izan da. Ikasle ugarik eman dute izena eta, beraz, ikasle asko izango dira oholtzan, instrumentu ezberdin ugarirekin. Orkestraren helburu nagusienera bat partaide gehiago izate denez, ikasle horiei gure laguntza eta berotasunik handiena eman nahi diegu, animatzeko. Aurrera begira egitasmo hau bailarako beste musika eskoletara zabaltzea da asmoa".

"Forjarrien Kanta" musikal

Eta aurtengo Musikaldiari urrezko amaiera emateko, azaroaren 20an "Forjarrien kanta" Musikalaren estreinaldia hartuko du Coliseo antzokiak. Eibarko Koru Gaztearen eta Eibarko Musika Bandaren eskutik egingo den ikuskizunaren emanaldi bi eskainiko dituzte, 11:30ean lehena eta 13:00etan bigarrena. Ikuskizun musikal Eibarran, 80. hamarkadan girotuta sortu dute: "Hiriko enpresa bat ixteko arriskuan dago, luxuzko etxebizitzak izango dituen eraikin handi bat eraiki nahi dutelako. Langabeziaren mahaixuaren aurrean, langileek enpresaren errentagarritasuna aldarrikatu eta irtenbide bat aurkitzen ahaleginduko dira. Langileek eurek firmaren jabetza eskuratzeko behar duten dirua biltzeko, musikal bat oholtea gainera ekartzea baliagarria izan daitekeela pentsatu eta horretara ipiniko dira". Sortzaileek diotenez, "eibarraren izpiritua islatzen duen musikal izango da eta, besteak beste, ikuskizun musikal ezagunetatik hartutako abestiak berreskuratuko ditugu".

Egitaraua

- Azaroak 13 (domeka), 12:30, Coliseoa **Ganbera-kontzertua**. "Harituz" hari-laukotea, Isabel Laspiur piano-jotzailea, Marisol Arrillaga soinu-jolea, Pablo Zubiaurre perkusionista, Eibarko Usartza Txistulari Banda. Zuzendaria: Elena Pérez. (3 €)
- Azaroak 18 (barixakua), 20:30, Coliseoa **Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa**. (10 €)
- Azaroak 20 (domeka), 11:30 eta 13:00, Coliseoa **"Forjarrien kanta" Musikal**, Eibarko Musika Banda eta Eibarko Koru Gaztearen eskutik. (5 €)

"Triste eta bakarrik zaudenean eta lagunik ez duzunean, gogoratu heriotza ez dela amaiera" esan eban Bob Dylan Literatura Nobel Sari barrixak 1988. urte aldera, bere sasoi *kristauan* idatzitako *Death is Not The End* kantuan. Bizitza fisikuaren amaiera dakar heriotzak, baiña horrek ez dau pertsonaren desagertzia ekartzen. *"Abierta estoy siempre al mortal porque la hora de su muerte es incierta"* diño, bestalde, Eibarko kanposantuko kapillaren aurrealdian idatzitakuak. Eta jua zan astian zabalduetako *Ad resurgendum cum Christo* izeneko adierazpenak esaten dau ezin dala errautsekin nahi dana egin, ez behintzat katolikua bazara eta elizaren esanak bete nahi badituzu.



Vincent West

Jua ten garen hilleta gehixenak tabernan ardo batzuk edaten amaitzen ditugu. Sasoi batian afarixak emoten ziran. Aspaldixan ikusi bako familiartekuekin alkartzen gara eta une horretako tentsiño emozionala jaitsi egitten da. Oraiin mende bat umiak hildakuen etxietara igotzen ziran hillotzak ikustera; gaur hildakoak ezkutatu egitten dira. Eta erromatarren sasoi, familixa oneko kidiak erraustu egitten zittuen eta behe maillakuak, barriz, lurperatu. Denbora kontua da, eta harek ekartzen deskun aldaketiena.

Beilategixak be 80ko hamarkadan hasi ziran ugaltzen eta horrek aldatu egin zeban heriotzaren ondorengo uniak bizitzeko modua. Lehen, etxian zaintzen zan hildakua, edo ospitalian. Oin *"ahalik eta ero-*

suen" igarotzen laguntzeko zerbitzu osuak, *"integralak"* deittutakuak, eskaintzen ditue hilleta zerbitzuak.

Pertsona bat hiltzen darian, heriotzaren barri emon bihar da erregistro zibillean, jaiotzen darian bezala. Horretarako, medikuaren agirixa ezinbestekua izaten da; hain zuzen be, hori da heriotza adierazten daben agiri ofiziala. Lehelengo 24 orduetan egin bihar da eta hori barik eziñezkua da gorpua lurperatzia edo erraustia. Normalian, hilleta zerbitzuak arduratzen dira, famelixaren ordezkari lana egiñaz, gestiño lan horretaz, baiña senidiak be egin leikez. Lurperatzeko edo errausteko, gitxienez 24 ordu eta gehixenez 48 bihar dira. 72 ordu bitartean tratamendu berezixa emoten jako gorputzari. Hortik aurrera gantzutu egitten da, egoki mantentzeko. Eta beste herrialde batetik ekarri bihar bada, hegazkiñez esaterako, balsamatu egin biharko da.

Hiltzia doakua da, baiña senideeri gastu batzuk eragitten detsez. Horregaittik, nahiko zabaldua dago hilleta aseguru kontratatzia. Hilkutxak homologatuak egon bihar dabe: hermetikuak, egurrezkuak edo horren deribatuenak, eta gitxieneko lodiera dakenak izan bihar dira. Araudiak ez

badau be askora bihartzen, erretzerakuan ahalik eta gas gitxienez sortuko dituen kutxak diseinatzan ditue. Horma hobi baten batezbesteko prezia 400 euro da. Hildakuen famelixak panteoia izan ezker, hobiratze tasak baiño ez dira ordaintzen, 70-100 euro inguru. Gorpuak ordu bi bihar ditte labian errausteko eta 800-1.000 gradu zentigradoko tenperatura hartzen dau. Amaieran, errautsez aparte, hezur lehorrer zatitxuak bakarrik geratzen dira, eta horiek prozesatu egitten dira hondar alien tamaiñua hartu arte. Kutxak kobrezkuak, egurrezkuak, alabastro edo harzurizkuak... merkienak be nahikua izaten dira. Prezia 45 eurotik (metalezkuak) 600erañño (brontze trinkokuak) jua daiteke.

Erraustu ondoren geratzen diran hondarrik famelixak jaso ohi ditte eta bere esku gelditzen da hárekin zer egin. Batzuek etxian gordetzen ditue, baiña normalena zabaltzia izaten da: mendixan, itsasuan... Dana dela, hillerrixetan gero eta gehixago ari dira zabaltzen kolunbarixuak edo urnategixak, errautsak jasotzeko hobiak. Badira aukera bitxiaguak be: argazkixen markuen tankerako kutxetan gordetzen ditte batzuk, eta lorategixetan jartzeko errauts piramidiak be izaten dira.

Bere gorputzarekin zer egin nahi daben norberak erabagi leike hil aurretik, eta testamentuan adierazi, baiña ez da ohikua. Senidiek erabagitzen dabe eta, famelixarik ez daganian, hobiratu egitten da.



Domu Santu Guztien egunian lorak nagusitzen dira oindiokan.

Errausetak goraka

Erraustuak izan nahi dabenen kopurua gountza doia etenbarik. Ez da kultura aldaketa bakarrik, ekonomixak be zerikusia izan leike: gorpuak errausteko eskaintzen dittuen preziua oso modu onekuak dira. Lurperatzia baiño zeozer merkiagua izan leike, hillobixaren hamar urteko alokairua, hillarrixak eta bestek asko igotzen dabelako preziua. Famelixa asko dira gaur erraustu eta erraustak hillobieten sartzen hasi diranak. 3.500 eurotan hilkutxa, tanatorixoko beila, garraia, eskelak eta hillobiratzea sartzen dira.

Lurperatziaren ordeztu erraustia aukeratu, zeozer aurrezteko aukeria badago, horrelakuetan kajarik sinplena aukeratu eta lore-kororik be sartzen ez dalako. Baiña aldía pentsau leikiena baiño txikixagua da. Funerariak eskindu leikezan zerbitzuen barruan hainbat gauza dagoz: eskelia, lorak (koroa), kutxa, tanatorixoa, lurperatzia, erraustia, hauts kutxa, oroigarriak, dokumentaziñuaren tramitaziñua, hil kapera (etxian), zetazko abitua, gorpua atontzia, siñadura mahaixa, horma eskelak, medikuaren ziurtagirixa, gorpua batzia (modu naturalian hil bada)... Baiña, orokorrian hartuta, oiñarrizko gastua hiru ataletan banatu leike: hilkutxa (%33 gitxi gorabehera), tanatorixoko gelaren alokairua (%17) eta eskelia periodikuan (%14). Funerariak eskindutako zerbitzuen artian, kremaziñuan egoteko aukeria be badago: *"Badira prozesu guztia jarraitzen dabena aldameneko gelatik"*. Eta badagoz musikarekin lagundutako agurrak be, *"10-15 miñutu irauten dabe"*. Estaduko herritarren erdixak baiño gehixagok heriotza aseguru-poliza bat daka; Europar, bestalde, %20xaren inguruan dabil. Gure gizaritia, dana dala, "katolikua" izaten jarraitzen dau famelixakuak agurtzerakuan behintzat, *"berdin detsa bat praktikantia izan ala ez"*.

Azken urtian Gipuzkoan 3.650 erraus-

*Funeuskadik
Otaola
etorbideko
27 zenbakixan
dakan
tanatorixua
2012xan
inaugurau zan.
Goizeko
09:00etatik
gabeko 21:00ak
arteko
ordutegixa daka.*



keta egin ziran eta 2.950 ehorzketa. Hau da, %56k kremaziñuaren alde egin zeban.

Vatikanuaren "toketxua"

Seguraski ez zan kasualidadia izango aurreko astia aprobeztatzia Vatikanoko Fedearen Doktriñarako Kongregaziñuak hildakuen erraustak ezin dirala aieratu eta ezta etxian gorde be esateko. Ez dau gorpuen erraustetia debekatzen, oso gogoko ez badaka be. Baiña erraustak leku sakratu batian gorde bihar dirala diño. Zergaittik? Horrek errautseri tratu txarrak emoteko arriskua dakarrelako. Hil aurretik modu nabarmenian erraustak baso batian zabaldu nahi dittuala adierazten dabena ez dau hillela elizkizunik izango: hori izango du zigor nagusixa. Onartzen dau, halanda be, kolunbarixuetan gordetzia. Kristau tradiziñuari jarraituta, Elixiak gorputzak kanposantuetan gordetzia gomendatzen dau, holan famelixak euren hildakuak ahazteko arriskua saihesteko. Beste kontu bat be badago: nitxuetako %70k ez dabela euren kontzesiñua barritzen lehelengo hamar urtiak pasatzerakuan. Nitxo asko hustutzen dira urtero, gorpuzkiñak erre eta hautson-tzi baten amaitzeko. Badira aluminiozko

estutxe elegantiak egitten dittuen enpresak. Hórrek erraustok gorde eta, zure smartphonea estutxe gaiñetik pasatuta hildakuen argazkixak eta bideak ikusi zeinkez.

Eibarko hillerrixa barritzen


Urki eta Armagin kalien artian herrixan dakagun kanposantuak 23 metro eta erdiko desnibela dauka eta iaz, esaterako, egon zan proposamen bat berau Altamirako terrenuetara eraman eta gaur egungo hillerrixa aisialdi gune egittekoa. Hillerri asko herritik kanpo badagoz be, Eibarko kasuan bizirik gagozenak eta hildakuak alkarrekin bizi garela esan leike, kanposantua herri barruan dagualako. Ikastetxiak, frontoiak, Bar Nuevoren atzeko aldiak... kanposantua inguratzen dabe eta giro berezixa eskintzen.

Bertan egitten dau biharra Oier Castelosek. Bera da arduradun nagusixa: *"Lau gara hamen biharrian: bi egun osoz eta beste bi jornada erdiz"*, diñosku. Urtebete daroia karguan, zazpi badarioaz be kanposantuan.

Gaur egun 4.648 nitxo dagoz gorputze-kin eta 2.188 hutsik. Castelosek diñuan ez, *"badakagu beste batzuk hustutzeko, jendiaren erantzunaren zain dagozenak"*. Behin epia amaituta, hildakuen famelixa-kueri abisua pasatzen detselako eurak erabagitzeko gorpuzkiñekin zer egin. 185 panteoi dakaz kanposantuak, 106 lurjabe go eta 518 nitxo errautsekin.

Egun osuan konserje lanak egittiaz gain (*"jendia gozo hartzia gure zeregiñetako haundixenetakua da"*, diñosku), instalaziñuak prestatziari ekiten detsa, beti be urgentziatzko kasuekin hasitta (*"jendiaren eskaerei erreparatzen detsegu batez be"*), eta nitxuak hustu eta kremaziñuekin ja-

*Toki askotan ez bezala, Eibarko kanposantua herri erdixan dago. **Maialen***



rraitzen dabe. Instalaziñuetako manteni-
 mendua, bedarra ebakitzia eta garbiketa
 lanak betetzen dabe egun osoko "plana".

Aurten 400 gorputz etara dittue nitxuetatik
 honezkerok, beste 70 eskaera dittue, 60
 gorputz lurperatu dittue eta erraustutako 40
 pasatu dittue nitxo txikixetara. Erraustuta-
 kuendako nitxuen beste bloke bar ipintze-
 kotan dagoz: "Prefabrikatuta heltzen jakuz
 eta badogu horren biharra". Profesionalki
 lan egittiarri garrantzi haundixa emoten de-
 tsa Oierrek, "hona datorrenak gozo ez da-
 bela pasatzen badakigulako". Batez be,
 emakumiak dira bisitarixak, "edadekuak gai-
 ñera". Berak diñoskunez, "badira 20-25 bat
 lagun astero pasatzen diranak hamendik".

Badaki kanposantua zaharkittuta geratu
 dala eta hamendik gitxira hasiko diran lanen
 barri emoten desku: "Badago proiektua
 abenduan edo urtarrillian hainbat sarbide bar-
 ririzteko, batez be goiko pasilluaren zolua
 bardintzeko. Honezkerok, bi bloke barritu di-

*Gero eta nitxo
 gehixago
 libratzen dira
 Eibarko
 kanposantuan.
 Maialen*



ra eta margotu". Anekdotak be bizi izan di-
 ttu, jakiña: "Ijituak errespetu haundixa detse
 euren famelixakueri eta gitarraz lagunduta
 egin izan dittue ekitaldixak, izan da ikurriña
 hilkutxan sartzeko eskatu deskuna, emaku-
 me batek Dire Strait-en abesti bat ipiñi zes-
 kun famelixakua agur-
 tzeko...". Panteoiekin
 izaten dittue arazo na-
 gusixenak, "han gor-
 pua sartzeko apaltsuak
 eta kajekin bat ez da-
 tozen bazterrak izaten
 diralako". Eta baitta hil-
 dakua pisu haundikua
 bada: "140 kilokua to-
 katu ezkerok, eta goiko
 nitxuan sartu bihar... ez
 da erraza". Eta hilda-
 kuen gorpuak ezin dira
 bost urtetan ukitu.

Panteoi zaharrenetarikua eta haundixeneta-
 rikua "Mandiola famelixarena da". Gorputza
 hamar urterako gordetziak 271'66 euro kos-
 tatzen da, erraustsak epe horretarako 135,83
 eta lurperatziak panteoietan eta lurrian
 217'12 euro.

Haraiñegun urtero azaruaren 2xan egitten
 dan mezia egin zan kanposantuko kapillan
 eta iñoiz baiño jende gehixago egon zan:
 "laz 150 aulki jarri bagenittuen, aurten 200
 ekarri genduazen eta jendia hor atzian be
 egon da, zutik". Oin neguko ordutegixa ipi-
 ñi dabe martxan, martxora arte: 10:00-13:30
 eta 14:30-18:00. Gero udakua abiatuko da:
 10:00-13:30 eta 16:00-20:00. Amaitu aurre-
 tik, Castelosek barkamena eskatu nahi de-
 tse norbaiti bihar dan moduan ez badetse ar-
 tatu, "badakigu-eta jendia hona egoera deli-
 kauan etortzen dala askotan. Ahaleginduta
 be, beti asmatzia ez da erraza".



*Domu Santu
 Eguna
 hildakua
 gogoratzeko
 aprobetxatzen
 dau jendiak.*

EIBARREN "Tipi-Tapa, Korrika" BERRIRO LAN BERRIAREKIN

**AZKEN SARRERAK
 SALGAI (8 euro)**


EL TIO PALANCAS (JUAN GISASOLA)
 VENETIK (URKIZU)
 eta GOZOKI

Pirritx,
Porrotx
 eta **MaRiMotots**

(BIDEBARRIETA eta
 SOSTOATARRKEN)

**azaroak 12
 ZAPATUA
 16.30 eta
 19.00**

**azaroak 13
 DOMEKA
 16.00 eta
 18.30**



moda



arkitektura

mikel solas -MODA DISEINATZAILEA-

I+D modan



Teknologiari esker mundua zitzu bizian doa eta honek eragin itzela dauka gaur egungo gizartean. XX. mendean ehungintza globalizatu zenetik eta herri mailan hedatu zenetik, enpresa teknologikoak gehiago arduratu dira modaren eragiteko moduz, distribuzioa errazteko eta ingurugiroa zaintzeko moduez baino.

Facebook edo Instagram bezalako plataforma teknologikoak oso lagungarriak izan dira modaren munduarentzat. Marka handietaz haratago, marka txikiak eta berriak, neurri handi batean, plataforma horiei esker eman dira ezagutzera.

Modaren beste gai bat pertsona ezin duen irisgarritasunean egindako lana da. Ehungintza enpresa askok diru mordoan inbertitzen dute zikintzen ez diren jantzi



autoadhesiboak buruz ikertzen edo automatikoki pegatzen diren itxigailu hermetikoetan.

Laburbilduz, gaur egun ezin da mundua modarekin baino teknologiarik gabe ulertu, ezta teknologia eta modarik gabe ere. Bata besteari lotuta doaz.

Instagram: [solas_design](#) Facebook: [solas solasdesignblog.wordpress.com](#)

olatz etxeberría -ARKITEKTOA-



Urriaren hasieran Murtziako arkitekto adituen elkargoko presidentea gonbidatu nuen Donostiako Arkitektoen egoitzara larrialdi egoeretan kontuan izan behar diren esku-hartzeei buruz hitz egitera. Arkitekto perituak, adituak garen ikuspuntutik argi ditugu zeintzuk izan behar diren egoera horietan hartu beharreko erabakiak. Denok dugu buruan lurrikara batek atzean lagatzen duen suntsiketa zela-

Arkitekturak mina hartu du

koa den. Lorkako lurrikarak 9 hildako laga zituen, guztiak eraikinetatik jausitako pusketak zapalduta. Bazenekiten egoera horietan hobe dela eraikin barruan ate baten azpian errefuxiatzea kalera irtetea baino? Bitxia ezta? Bada... informazioa falta zaigu, ez duzue pentsatzen? Tamalez astebukaera honetan Italiako lurrik (argazkietan) berriz ere dantza egin du eta horrekin batera txikizioa albiste da. Eskerrak hildakorik ez den izan, baina arkitektoa naizen aldetik, eraikin eta hirietan duen eragina demasekoa izan da, eta zer esanik ez ondare arkitektonikoan. Dolu astea arkitektura zaletuentzat eta giza oroimenarentzat.





Katu-Kale Kopako finalaren bila bihar Ipuruan

Jardunaldi garrantzitsua izango da biharkoa Katu-Kale saskibaloï taldearentzat. Orain arte jokatutako partidua bikainei esker Kopako finalean izango dira eibartarrak, 18:15etik aurrera Larramendi taldeari irabazteko asmoz. Aurkarien erasoko joko onari orain arte erakutsitako defentsa bikainarekin erantuz beharko diete Katu-Kalekoek. Sergioren parte-hartzea dago zalantzan, baina beste guztiak prest daude partidurako.

Bestalde, domeka honetan hasiko dira Ipurua kiroldegian saskibaloiko atekak zabalik jardunaldiak. Interesa duten neska-mutil guztiak aukera izango dute saskibaloia praktikatzeko 18:00etatik 20:00etara.



Pilota Eskola bizi eta jendetsua

Aurten berrindartuta ekin diote ikasturteari Eibarko Klub Deportiboko pilota eskolakoei. 40 ikaslek baino gehiagok eman dute izena, guztiak ere 2008. eta 2011. urteen artean jaiotakoak. Jose Mari Bernedok zuzentzen dituen entrenamenduak bi taldetan daude banatuta: 17:00etatik 18:00etara 2011n jaiotakoek jarduten dute lanean eta jarraian, 18:00etatik 19:00etara, nagusitxoagoek. Entrenamendu horiek "txikienek pilota gozatzeko helburuarekin" egiten dihardute. "Norberaren entrenamendu-ordua ez denean ere" pilotan egiteko aukera dute ikasleek frontoiaren atzealdean; hori bai, "guraso edo familiartekoek zaindu beharko dituzte" frontoiko sartu-irtenak.

Concepto Egile onenekin lehiatu, Colo Colo indartsua hartu bezperan

Debarrena areto-foballeko lehen taldea erraz nagusitu zen Gasteizen (1-5) hango Aurreraren aurrean. Elgoibartarrak galtzen hasi ziren ere, goitik behera nagusitu ziren partiduan eta, horrela, atsedendiraiko aurreratzea lortu zuten, Asier eta Gabiren golei esker. Bigarren zatian Mar-

cosok eta Montxok lortutako bi golek Aurrera behartu zuten atezain-jokalariarekin jokatzerara eta, hori aprobetxatuz, Montxoren bigarren golak partidua erabaki zuen. Concepto Egilek 16 puntu ditu eta hirugarrena da sailkapenean, domekan IMH-n jasoko duen Colo Colo titulurako hautagaia

baino puntu bat gehiagorekin.

Kadeteak ere nagusi

Debarrenako kadeteak ere garaile izan ziren Mondraten aurrean (5-0). Fikrik bi gol sartu zituen eta bana lortu zituzten Asierrek, Patxik eta Yagok.

Debarrenako kadeteak



M^a LUISA GARATE ALTUNA "Marialui"

2. urteurrena (2014-XI-6)

"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan
dituzun ilusioa eta bizipoza"

URTEURREN MEZA

azaroaren 6an, domekan, 12.00etan, San Andres parrokian



Ipuruako hiru taldeek gimnasia erritmikako San Andres Torneoaren podiumean

Aurreko zapatuan jokatuak Eibarko torneoaren XVIII. edizioak 15 taldetako ordezkariak hartu zituen. Taldeka hongoi parte-hartzaile izan zituen lehiaketak, banakakoan bost gimnasten lana eskaini zigun, tartean Eneko Lambea eta Ander Olcoz. Seniorretan urrezko domina Barañaingo Lagunak klubak bereganatu zuen eta brontzezkoa Rítmica Vitoriak eraman zuen. Euren artean sailkatu zen Elene Varelak, Elena Sudupek, Nahia Arguizek,

Malen Txurrukak eta Jennifer Hernandezek osatutako boskotea. Juniorretan, bestalde, Alaiako nafarrek Club Donostiren eta Sakonetako bizkaitarren aurretik nagusitu ziren.

Oinarrizko mailan, Ipuruako infantilak bigarrenak eta hirugarrenak izan ziren, Laredo irabazlearen atzetik. Ipurua 2-k (Ana Portu, Sara Etxaburu, Izaro Altuna, Ainhoa Bizkarra eta Sara Aranguren) aurrea hartu zion Ipurua 1-i (Maddi Teran, Lur Aranburu, June He-



redero, Enara Bilbao eta Indira Hernandezek osatutako boskotea. Juniorretan, bestalde, Alaiako nafarrek Club Donostiren eta Sakonetako bizkaitarren aurretik nagusitu ziren.

Espainiako Taldekako Txapelketa eta banakako Kopa jokatuzera. Aurretik, baina, Nafarroako Txapelketa eta 28. Logroñoako Hiria torneoan hartuko dute parte.



Ondo hasi dute denboraldia herriko xakelariek

Herriko hiru xakelariek dihardute abiatu berri diren Gipuzkoako Bakar-kako txapelketetan. Bergaran jokatzen ari den Txapelketa Nagusian Edu Olabek eta Jon Aranak hartzen dute parte eta, dagoeneko, Olabek hiru puntu eskuratu ditu, Arnak bi lortu dituen bitartean. Donostian jokatzen den 3. mailako txapelketa, bestalde, Jose Antonio Garrido da Eibarko bakarra eta ezin hobeto hasi du lehia, jokatutako hiru partidak irabazita.

Urbateko waterpolisten plenoa

Asteburuan jokatuak lau partidak irabazita, pozarren irten ziren Orbeako igerilekutik Urbat-Urkotronik-eko ordezkariak. Euskal Herriko Ligako 1. mailan jokatzen duen senior taldeak aurreko astean Gasteizen Lautadari irabazitako neurketak jarraipena izan zuen barixakuan Oiaso Bidasoa XXI-en aurka zaletuen aurrean jokatuak. Eibartarrek 13-12 irabazi zioten ligako handietako bati amaiera arte orekatuta joan zen partiduan. Alain Moya buia postuan eta Eneko Trebiñoren azken gol zoragarria gehiago izan ziren Icaro Carecho buia brasildarra baino.

Zer esan, bestalde, Urbat-Urkotronik 3- eskainitako ikasgaiak? Aurten sortutako nesken taldea sailkapeneko goienean dago hiru jardunaldi jokatuta. Oraingoan, gainera, Getxo ez zen aurkari izan eta berehala eman zuen amore (26-3). 2. Mailan jokatzen duen mutilen bigarren taldeak, bestalde, le-



hen garaipena eskuratu zuen Easori 21-10 irabaziz. Aurreko denboraldiotan lehen taldeari arazoak sortzen zizkion Donostiako taldea (hortik ondorioztatu daiteke Urbatekoen progresioa) eibartarrena baino gutxiago izan zen, batez ere Unai Lete eta Imanol Nieto atezainek egindako lan bikainari esker. Eta kadeteak ere garaile izan ziren denboraldiko estreinaldian: 15-7 Waterpolo Donostiren aurrean. Maila eman zuten eurekin jokatu zuten Anton Akizu, Haritz Otero, Xabier Egidazu, Xabier Varela eta Unax Unzeta infantilek.



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

www.kolorlan.com
667 54 89 16 (Ritxar)



KOLORLAN
P I N T U R A K



Aste honetan aurkeztu dituzte Avia Eibar Rugbykoek euren talde guztiak. **Felix Beitia**

2. Mailako Eibarko neskak 7. postura igo dira

Aurrera Vitoriari 2-0 irabazita, eibartarrak sailkapeneko **erdialdera** igo dira eta baita gasteiztarrak harrapatu ere 6. postuan. Felix Recio prestatzen dituen neskak hasieratik nagusitu ziren eta, horrela, 10. minutuan, Lombak armaginak aurretik jartzea lortu zuen. Joko onak hainbat aukera eskaini zizkion Eibarko taldeari, 70. minutuan Mar-ek bigarren gola sartu zuen arte. Hurrengo jardunaldian Burgosera joango dira eibartarrak, hango Nuestra Señora del Belen taldeari aurre egiteko.



lazko aurkezpenaren irudia.
Artxiboa

Espainiako II. Jiu Jitsu Kopa jokatu da bihar eta etzi Ipurua Kiroldegian

laz izan zuen arrakastari jarraituta, Kalamua Klubekoek Espainiako Jiu Jitsu Koparen bigarren edizioa antolatu dute. Jardunaldiek Ipurua kiroldegia hartuko dute bi egunetan, honako orduetegiari jarraituta: biharko jardunaldia goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00ak arte egingo da eta arratsaldeko 16:00etatik 20:30era. Domekan, bestalde, goizez izango da saio bakarra, 10:00etatik 12:00ak arte, eta horrek gizonen eta emakumezkoen senior mailako judo txapelketak izango ditu jokoan.

Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





MENTXU AMUNATEGI

(Nekazaritza Ekologikoan aditua)

- Mundakan daukazu nekazaritza-ustategia. Zer landatzen duzu?

Mailubiak, barazkiak, usain belarrak eta sendabelarrak ditut. Gernikako plazara astelehenero joaten naiz. Urte asko daramatzat basogintza, frutagintza eta ortugintza.

- Zer eskainiko duzu ...eta kitto!n emango duzun saioan?

Gure inguruko landareak eta loreak ezagutu eta sukaldaritzan zein osasun alorrean ematen dizkiguten aukerei buruz egingo dugu berba. 5-7 landare inguru aukeratuko ditugu: asunak, txiza-loreak, erromeroak, larrosak... Oso arruntak eta gertu ditugunak, azken finean. Dastaketa

“Dastaketan gure inguruko loreak eta landareak ezagutuko ditugu”

Mentxu Amunategi bermeotarra Eibarren izango da azaroaren 15ean, 19:00etatik aurrera, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako “lore dastaketa” saioan. Mentxuk urte asko daramatza nekazaritza ekologikoan lanean eta Mundakan, kanposatu ondoan ustiategi txiki bat dauka. Hainbat urte eman ditu EHNEan landare eta sendabelarrei buruzko ikastaroak ematen eta Eibarren ere sarritan izan da Ikasten-ek sendabelarrei buruz antolatutako ikastaroak ematen. Saioan parte hartzeko 943 20 09 18 telefonora deitu daiteke (Berbalagunek lehenetsuna izango dute).

egiteaz gain, landareen sasoiak eta zikloak ezagutzea oso garrantzitsua da. Jakin egin behar da landareak nola dauden ziklo bakoitzean eta atal desberdinek (sustraiak, ostoeak, loreak) ere momentu eta erabilera desberdinak dituztela. Aukeratutako lorea eta landareen jatorria eta esparru kulturalari buruz jardungo dugu eta batzeko moduari buruzko aholkuak ere emango ditut. Azpimarratu nahiko nuke bitxikeriaz jositako ikastaroa izango dela: zergatik agertzen dira loreak sarriago leku konkretu batzuetan, errepideen ondoan esate baterako? Autoek metal astunak isurtzen dituztelako. Horrelako bitxikeria asko azalduko ditugu.

- Gaur egungo sukaldaritzan gero eta gehiago ikusten dira loreak...

Bai, modan daudela esan daiteke, baina askotan ez dira hemengoak izaten, kanpotik ekarritako lore exotikoak izaten dira. Moda guztien gainera baliabide asko ditugu gure inguruan. Zergatik ez erabili porru, berakatz edo tipularen loreak? Beldur hori kentzeko dastaketetan asunean olio bat prestatzen dut, entsaladari gehitzeko edo ogiarekin jateko. Hojalde edo hostopil oso gozoak ere egin daitezke. Baina garrantzitsua da sasoiaren jasotzea, loratu baino lehen, loratzen direnean garraztu egiten dira-eta. Gauza asko hartu behar dira kontuan.



I. OJANGUREN lehiaketako lanak ikusgai

Aurreko barixakuan zabaldu zuten Portalean Indalezio Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketako lan irabazleekin eta beste batzuekin osatutako erakusketa. Horrekin batera, aurtengo irabazleei sariak banatu zizkieten. Erakusketa azaroaren 20ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

EIBARKO KANTUZALEAK ospitalian

Aurreko barixakuan, hilero egiten duten kantu kalejira hasi baino lehen, Eibarko Kantuzaleak abesbatzak eta Musika Eskolako soinu-joleek Legarren saioa egin zuten, San Andres egoitzan, han bizi den Jardinetako Jesusak 99 urte bete dituela eta, hori ospatzeko kantuan.





Bizitzako gazi-gozoek antzokian

Gaur 20:30ean "Mármol" antzezlan hartuko du Coliseo antzokiak, El Vodevil-en eskutik. Susana Hernandez, Pepe Viyuela, Jose Luis Alcobendas eta Elena Gonzalez antzezleek jardungo dute taula gainean, Antonio C. Guijosak zuzenduta, "komedia mingotsa, gaur egungo tragedia" eskaintzeko. Marina Carrek sortu duen lana ikusteko sarrerak 18 euro balioko eta, betiko moduan, ikuskizunaren aurretik antzokiko leihatilan erosteko aukera izango da.

Mikroantzerkia domeka arratsalderako

Ubitxa kalean dagoen Biharran sormen espazioak, lehen urtebetetzea ospatzeko, hainbat jardura antolatu ditu azarorako. Egitarau horren barruan, domekan, 18:00etatik aurrera, mikroantzerkiarekin gozatzeko aukera izango da Katapultatour plataformarekin: Pez Limbok "Mama gallina" eskainiko du eta Cia. Nogusanok "A pan y agua". Sarrera doan izango da.



Bertso-bazkaria Akaran

BERTSO BAZKARIA
AZAROAK 12

Maialen Akizu (Urrats)
Aimar Goenaga (Fitar)
Aratz Igartzabal (Gabiria)

GAU JARTZALEK: Fitarako gaztekoen bertso eskola

BAZKARIA 14:30tik AURRERA
SAIDA 16:00

MENU DESBERDINAK IZANGO DIRA AUKERAN.
ERRESERBAK TABERNAN EDO 943 04 37 82 TELEFONORA DEITUZ EGIN DAITEZKE

Ar+Ola+zaleak

Akara tabernak bertso bazkaria antolatu du azaroaren 12rako (zapatua). Hiru bertsolari arituko dira kantuan: Maialen Akizu urretxuarra, Aratz Igartzabal gabiriarra eta Aimar Goenaga eibartarra. Gaiak jartzeko ardura, berriz, Eibarko gaztetxoaren bertso eskolako kideek izango dute. Bazkaria 14:30ean izango da (saioa 16:00ak aldera hasiko da) eta, joan nahi dutenek, tabernan bertan edo 943 04 37 82 telefonora deituta egin dezakete erretserba. Menu ezberdinak izango dira aukeran, bakoitzak bere gustokoa hartzeko.

Mahai-jokoak Kantabriako Etxean

Kantabriako Etxeak antolatuta, azaroan eta abenduan jokatuko dira mahai-joko txapelketak elkarteak Jardifietan duen tabernan: domino txapelketa izango da lehena, azaroaren 12an; mus txapelketa hilak 19an jokatu da, tute txapelketa hilak 26an eta "flor" karta-joko txapelketa, berriz, abenduaren 17an. Txapelketa guztiak 16:00etan hasiko dira.

Bideo-foruma

Gaur arratsaldean, 19:00etan "La fuente de las mujeres" filmaren inguruko bideo-foruma egingo da Portalean, Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. 2012ko pelikulan Afrikako iparraldeko herri bateko emakumeek egindako sexu-grebari buruzko istorioa kontatzen dute. Pelikularen ondotik hasiko den solasaldia izaskun Rodriguez Elkorok gidatuko du eta sarrera doakoa eta irekia izango da.



Sostoaren omenaldi afaria

Urteetan Sostoa zuzentzen ibilitako Mari Karmen Etxeberriari omenaldia egiteko afaria antolatzen dihardute abesbatzako kideek eta, bide batez, Santa Zezilia ere ospatuko dute. Azaroaren 26an izango da afaria, Unzaga Plaza hotelean eta joan nahi duenak 35 euro sartu beharko ditu Kutxabankeko 2095 5035 0710 6108 3381 kontuan, izen-abizenak zehaztuta (azaroaren 17a baino lehen). Abesbatzako kideek ez ezik, kide ohiek ere izango dute joateko aukera.



Estudioko argia argazkilarientzat

Estudioko argiztapenaren inguruko tailerra antolatu dute Deporreko argazkilariek abenduaren 10erako (zapatua), Portalean, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara, nahi duten guztientzat (abiadura eta diafragma eskuz moldatzeko aukera eta flasherako konexioa dituen kamera izatea beharrezkoa da). Flashari buruzko informazio teorikoa, argiaren kolore-tenperatura, estudioan argia nola neurtu, fondoak... lantzeko aukera izango da. Izen-ematea argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzita egin daiteke (gehenez 12 lagun onartuko dituzte).



"Macho-Maris" umorezko lana

Zipriztintzen, Berdintasunaren aldeko Ermuko Gizonen Taldeak "Macho-Maris" izenburuko showa aurkeztuko du datorren asteko barixakuan (azaroak 11) Portalean, 19:30ean, Andretxearen eta Eibarko Udalaren eskutik. Markus eta Juanmanolo protagonista dituen ikuskizuna "kode matxisten aurka matxinatzen ahalgintzen ari diren gizonei" eskainitakoa dela diote. Umorea erabiliaz, maskulinitateari buruz jardungo dute ia ordubetea, "oso erritmo arinean" eta gai ezberdin askori helduta: gizon taldeak, gizonen arteko harremanak, zaintza partekatua, abortatzeko eskubidea, lan banaketa... Sarrera irekia eta doakoa izango da.



Marrazkilari gazteak lehiaketan. Maider

Asier Errasti film laburren jaialdia

Astelehenean hasiko dira XVII. Asier Errasti Film Laburren jaialdiko proiektzioak Coliseoan, 20:00etan (sarrera doan). Udak eta Plano Corto elkarteak antolatutako lehiaketan aurtun 44 finalista aukeratu dituzte eta horiek dira datorren astean, barixakura bitartean, egunero emango dituztenak. Bestek beste, euskerazko lanen ataleko 'Hileta' (Kepa Sojo), 'Ihesa' (Alejandro Diaz Castaño), 'Isabel' (Nerea Arrizabalaga Lecertua) eta 'Beti Bezperako Koplak' (Ageda Kopla Taldea) film laburrak ikusteko aukera izango da, herri mailako atalean lehian dauden 'Fase Rem' (Mikel R. Alberdi) eta 'Consejos para eliminar la caspa' (Cruz Noguera) eibartarren lanekin eta sailkatutako besteekin batera. Irabazleei saria banatzeko ekitaldia, bestalde, azaroaren 12an (zapatuan) izango da, Portalean.

AZAROA
7-12
NOVIEMBRE



Aire Zabaleko Pintura Lehiaketako saridunak

Joana Soldevillak (Viana) eskuratu du helduen mailako lehen saria aurreko domekan egin zen XXXIX. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketan. Bigarren saria, berriz, J. Miguel Arranzek (Erandio) jaso du, hirugarrena Jokin Telleriak (Beasain) eta laugarrena Esteban Oroz eibartarrak. Gazteen artean, 12 eta 18 urte bitartekoen mailan, lehen saria Miren Ereña eibartarrak jaso du eta bigarrena, berriz, Ane Pascual donostiarrak. Eta 12 urte artekoen mailan, lehen saria Malen Garatek eraman du eta bigarrena Lorea Sarasketak (biak eibartarrak). Epaimahaia Iratxe Unanue, Leire Kareaga, Jose Agustin Larrañaga eta Jo-



Joana Soldevilla irabazlea Patxi Lejardi zinegotziarekin. Maider Aranberri


se Luis Martinez de Antoñanak osatu dute. Aurtengo edizioan 46 lagunek hartu dute parte (18 helduen mailan).

AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

6. urteurrena: 2010-XI-7

"Beti izango zara gure bihotzetan"

ETXEKOAK





Bertso jaialdia ERMUAN


Gaur, azaroak 4, Euskal Birusak antolatutako bertso jaialdia izango da Ermuko Antzokian. 22:15etik aurrera. Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Alaia Martin bertsoari hartuko dute parte, eta gai jartzailea Josu Goikoetxea izango da. Sarrerak 10 euro balio du.



ELGOIBAR Erdi Aroan

Arkeolan Fundazio arkeologikoak "Elgoibar Erdi Aroan" izeneko bisita gidatua eskainiko du biha, zapatua (azaroak 5). Aurkikuntza arkeologikoetan oinarrituta, Elgoibarko herriaren sorrera eta hiribilduak Erdi Aroan zuen itxura ezagutzera emango dute. Elgoibarri buruzko xehetasun eta bitxikeria ugari ezagutzeko aukera izango da, besteak beste: sorrera, urbanismoa, hiribilduko harresia, lubanarroa edo fosoa... eta baita gure arbasoen bizimodua nolakoa zen ere. Doakoa izango da. Ibilbide gidatua udaletxe aurretik hasiko da 12:00etan, eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Beharrezkoa izango da alde aurretik izena ematea. Interesatuak Arkeolan Fundazioan eman behar dute izena: 943 63 82 18 telefonora deituta edota arkeolan@arkeolan.com posta elektronikora mezu bat idatzita.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Francisco Agirre Arrillaga. 78 urte. 2016-X-27.
- Jose Gonzalez Quintas. 86 urte. 2016-X-30.
- Rosita Arizmendiarieta De la Torre. 93 urte. 2016-X-30.
- M^a Jose Serrano Hernandez. 44 urte. 2016-X-30.
- Jesusa Azpiri Bergara. 85 urte. 2016-XI-1.
- Sotera Belastegi Larrañaga. 89 urte. 2016-XI-1.
- Arrate Gisasola Gantxegi. 77 urte. 2016-XI-2.

jaiotakoak

- Manal El Keaiti Serroukh Benslaïman. 2016-X-25.
- Asier De los Santos Alejo. 2016-X-25.
- Mikel Guruzeta Polo. 2016-X-29.
- Iruñe Baños Imedio. 2016-X-30.

farmaziak

- Barixakua 4
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 5
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 6
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 7
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 8
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 9
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Eguena 10
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Barixakua 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

8	2	3	6	7	4	5	1	9
6	1	7	5	3	9	2	4	8
5	9	4	2	8	1	7	6	3
9	6	2	3	4	8	1	7	5
4	8	1	7	2	5	3	9	6
3	7	5	9	1	6	4	8	2
2	5	8	1	9	7	6	3	4
1	4	6	8	5	3	9	2	7
7	3	9	4	6	2	8	5	1

SUDOKUA

2		7	1			4		
	4			9	8	3		1
		8			2			
		3	8		9	1		
			4			9		
6		2	5	3			4	
		9			4	5		6

Barixakua 4

BIDEO-FORUMA

19:00. "La fuente de las mujeres", Pagatxa Emakume Elkarteak antolatuta. Portalean.

BILERA

19:00. Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultur.

ANTZERKIA

20:30. "Mármol" (El Vodevil). 18 euro. Coliseoan.

Zapatua 5

IKASTAROA

10:00/13:30 eta 18:00/20:30. Autodefentsa feminista, Udal Berdintasun Zerbitzuak eta Eibarko Emakumeen Mahaia antolatuta. Portalean.

TAILERRA

11:00/13:00. Gure inguru sozio-ekonomikoan gizonak eta emakumeak duten rolari eta bera aldatzeko aukerei buruz hausnarketa egiteko ("XIII. Berdintasunaren Gunea 2016"), Begoña Pecharroman antropologoak gidatuta. Txaltxa Zelaian (autobus ibiltarian).

JARDUNALDIA

11:00/13:00. Teknologia eta zientziarena, Zientzia eta Teknologiaren Astearren harira. Armagintzaren Museoan.

ENPANADA-MAGOSTO JAIA

11:00. Ribeiro ardoa eta enpanada zatiak saltzeko txosna irekiera.
13:00. Gonbidatuei harrera.
13:00. VII. Enpanada Lehiaketa.
14:00. Sari-banaketa.
18:00. Gaztaina erreak, txorizo pintxoak, Ribeiro ardoa eta Estrella de Galicia garagardoa salgai. Os Galaicos gaiteroen saioa.
21:00. Jaiaren amaiera. Urkizuko parkean.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Udazken-neguko asteburueta umek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipuru kiroldegian.

Domeka 6

IKASTAROA

10:00/13:30. Autodefentsa feminista, Udal Berdintasun Zerbitzuak eta Eibarko Emakumeen Mahaia antolatuta. Portalean.

ENPANADA-MAGOSTO JAIA

11:30/14:30. VII. Enpanada eta Magosto Jaia, Galiziako Etxearen eskutik. Gaztaina erreak, txorizo pintxoak, Ribeiro ardoa eta Estrella de Galicia garagardoa saltzeko txosna. Os Galaicos gaiteroen saioa.
11:30/12:30. Gaztainak doan, umeentzat.
14:30. Jaiaren amaiera. Urkizuko parkean.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Udazken-neguko asteburueta umek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipuru kiroldegian.

MIKROANTZERKIAK

18:00. "Mamá gallina" (Pez Limbo), "A pan y agua" (Cía Nogusano). Biharian-en (Ubitxa, 16-18).

Astelehena 7

IKASTEN

10:00. Teknoforum. Untzaga jubilatutuei etxean (liburutegian).

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa: "Landare kaustikoak" (huntza, pikondoa, zelidonia). Portalean.

HITZALDIA

19:00. Byron Katie-ren "Lana" metodoaren gakoak, Joseba Idoyagaren eskutik. Antolatzailea: Defibel. Saio irekia, doan. Portalean.

FILM LABURRAK

20:00. XVII. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia. Sarrera doan. Coliseoan.

Martitzena 8

IKASTEN

10:00. "Aske pentsatu gizarte konplexu batean. Gehiengoaren tirania gairiditu" hitzaldia, Javier Elzo soziologoaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

EMAKUMEEN ISTORIOAK

18:00. "Emakumeen istorioak" saioa, Leticia Mtnez.-Alcocerren eskutik: Mary Wollstonecraft-en biografia. Ekintza irekia eta doakoa. Portalean.

FILM LABURRAK

20:00. XVII. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia. Sarrera doan. Coliseoan.

Eguaztena 9

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

FILM LABURRAK

20:00. XVII. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia. Sarrera doan. Coliseoan.

Eguena 10

IKASTEN

10:00. "Erromatar inperioaren gainbehera" hitzaldia, Urko Barrosen eskutik (Historian Lizenziatua). Armeria Eskolan.

DANTZALDIA

18:00. Ikasten-ekoa. Untzaga jubilatutuei etxean.

ODOLA ATERATZEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

FILM LABURRAK

20:00. XVII. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia. Sarrera doan. Coliseoan.

Erakusketak

Azaroaren 6ra arte:

– **ARRATE KULTUR ELKARTEKO** BAZKIDEEN lanak. (*Topalekua*)

Azaroaren 13ra arte:

– **DIEGO AGUDO PINILLAREN** "Pelota sobre papel". (*Portalea*)

Azaroaren 20ra arte:

– **I. OJANGUREN 29. ARGAZKI LEHIAKETAKO** lanak. (*Portalea*)

Azaroaren 30era arte:

– **IÑAKI MARKAIDEREN** argazkiak. (*Klub Deportiboa*)

– **RICARDO CERRATOREN** argazkiak. (*El Ambigu*)

– **JOSE VILAREN** argazkiak. (*Portalea jatetxea*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Ongi etorri, LANDER, urriaren 26tik gurekin zagoz-eta. Musu potolo bat gurasueri famelixa guztiaren eta, batez be, izaroren partez!




Zorionak, BEÑAT, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat lbaiaren eta famelixaren partez.



Zorionak, LOREA, astelehenian bederatzirte beteko dozuz-eta. Ondo pasa, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, BEÑAT, etxeko txikitxuak bixar bi urte egingo ditte-eta! Musu erraldoia, famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.




Zorionak, BEÑAT, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Musu erraldoi bat famelixaren eta, batez be, lbaiaren partez.




Zorionak, MARTIN, mutil haundi, domekan zazpi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MALEN, atzo bi urte bete zenduaz-eta. Musu pillo bat famelixaren partez. Segi holan!




Zorionak, HIART, gaur bost urte egitten dozuzelako. Musu haundi bat famelixa eta, batez be, neba Ekainen partez.



Zorionak, ALAITZ, azaruaren 10ian 9 urte egingo dozuzelako. Ama, neba Ugaitz eta aitxitxa-amamaren partez.



Zorionak, GARI, etzi bi urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ekainen partez. Segi holako jator eta bihurri!



Zorionak, ARIANE, gure printzesak bixar zazpi urte bete dozuz-eta. Patxo erraldoia famelixaren partez. Segi hain jator!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
5ean: 19:45, 22:30
6an: 20:00

"La chica del tren"

Zuzendaria: Tate Taylor



(2 ARETOAN)
5ean: 17:00, 19:45, 22:30
6an: 17:00, 20:00
7an: 20:30(1 Aretoan)

"Historia de una pasión"

Zuzendaria: Terence Davis



(ANTZOKIAN)
5ean: 17:00(1 Aretoan), 19:45, 22:30
6an: 17:00(1 Aretoan), 20:00
7an: 20:30

"100 metros"

Zuzendaria: Marcel Barrena



(ANTZOKIAN)
5ean: 17:00
6an: 17:00

"Trolls"

Zuzendaria: Mike Mitchell



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.
- Pisua alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Iggogailuarekin. Tel. 650-156832 eta 646-079423.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 652-532589.
- Bi gelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 603-683176.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Urkizuko dorreetan. 85 m². Tel. 605-206151.
- Garaje marraduna salgai Urkizuko dorreetan. Armairua ipintzeko tokiarekin. Tel. 605-206151.
- Taberna traspasatzen da Ipuruan, fobalzelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Bittor Sarasketan. 15 m². Iggogailua eta komunak. Bariantera irteera zuzena. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garajea alokagai Matsarian. 16 m². Sarrera kalearen mailan. Komunak eta autoa garbitzeko gunearekin. Bariantetik zuzeneko sarrera eta irteera. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Trastelekuarekin. Tel. 657-715162.
- Eibar erdian ezin hobeto kokatutako kirol-zentroan (Ugan Klub - F. Calbeton, 11) fisioterapia lanetan jarduteko gela alokagai. Tel. 943-820452. Edo utzi mezua: ugan-klub@gmail.com
- 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, asteburuetan barne. Baita ospitalean ere. Tel. 632-032798.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak, gaixoak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-230281.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 628-318570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-683176.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 602-393678.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 637-102725 eta 943-744033.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Interna. Tel. 619-384738.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 615-394820.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan gaixoak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizean goiz soziedadek edo tabernak garbitzeko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 666-844365.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 612-492519.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-235524.
- Gizona eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- 32 urteko emakume arduratsua eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-827655.
- Neska eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 626-444649.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 675-207301.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 647-276133.
- Neska eskaintzen da arratsaldeetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-823029.

4.2. Langile bila

- Eibarko enpresak bi tornero hartuko lituzke. Pieza bakarrak edo serie motzekoak fabrikatzeko, eta baita buru mugikorreko dekoletaje tornioak. Mekanizatuaren programa prestatu eta gauzatu beharko du. Esperientziaren arabera soldata. Behinbetiko kontratua. Bidali kurrikuluma: jazaga2000@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarren jornada osorako. Bidali kurrikuluma: eibarkafe@gmail.com.
- Sukaldaria behar da Eibarko jatetxe batean. Astean bi egun eta erdi jai. Tel. 604-203896.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- DBH eta Batxilergoko Zientzien arloko irakaslea behar da Bergarako akademia batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma: 3d3akademia@gmail.com
- Gitarra akustikako klaseak hartuko nituzke asteen birritan. Solfeorik gabe. Tel. 699-693821.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- LHko ikasleei zuzendutako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 605-746908.
- Irakasle-masterra, EGA eta Ingeles ikasketak dituen neskak LH eta DBH klase partikularrak ematen ditu. Baita ikaslearen etxean ere. Tel. 657-721050.
- DBH, Batxilergoa eta Heziketa 2. zikloko Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen dira. Tel. 685-739709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624321.
- Errepide-bizikleta salgai: Laiz kuadroa, Campagnolo osagarriak, neumatiko berriak (1,60-1,65 altuerarako). 250 euro. Tel. 687-326230.
- Iraultze-taula salgai. Teeter hang ups markako F8000 modeloa. Oso ona. Argibide eskuliburua eta ariketen bi DVD-rekin. 280 euro (380 erosi berritan). Tel. 687-326230.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa **Arreta arazoak**
Disfonia Berba arazoak
Ikaste-arazoak Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ONA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartertea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikak

Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

Tel. 605 75 75 06

- Lengoaia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa

1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com